




JARDUERAK KOADERNOA

HAUR



AURRETIKO IRAKURKETAREN JARDUERAK



ASMAKIZUNAK ETA AHO-KORAPILOAK

Jarduera honekin, zera lortu nahi dugu...

Arloa: **Ingurunearen ezagutza**. 2. multzoa.

Beharko dugun materiala:

Asmakizunak eta aho-korapiloak.

Hezitzailearentzako oharra:

Jarduera hau Batzarrean egin behar da, "Linoren baratzeko sekretua" ipuina irakurri aurretik. Jarduera osa daiteke barazkien argazkiekin.

Garapena:

- Ipuin berria kontatu aurretik barazkiez zer dakiten ikusiko dugu. Abiapuntu gisa aho-korapiloak eta asmakizunak erabiliko ditugu, ipuineko protagonista diren barazki batzuen izena asma dezaten.

Aho-korapiloa:

Piperra ederra,
gorria edo berdea,
berdea errea,
gorria errea,
ederra piperra.

Asmakizunak:

Gordina entsaladan,
bakailaoarekin saltsan,
frijituta edo gazpatxoan,
jan eta jan.

(tomatea)

Zer da
hanka zuzena duena,
bururik ez duena eta txapela daukana?
(barrengorria)

TOMATEAK

Jarduera honekin, zera landu nahi dugu...

- Arloa: **Norbere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala.** 1. multzoa.
- Arloa: **Ingurunearen ezagutza.** 1. eta 2. multzoak.

Beharke dugun materiala:

Tomate mota ezberdinak: cherry, udarekara, kumatoa eta raf.

Hezitzailearentzako oharra:

Jarduera hau Batzarrean egin behar da, "Linoren baratzeko sekretua" ipuina irakurri aurretik.

Garapena:

- Azaldu irakurtzera goazen ipuineko protagonista tomate bat dela, eta zer gertatu zitzaion jakin aurretik zer tomate mota dauden ikusi behar dugula.
- Ikasgelara lau tomate mota eraman, ezagutu ahal izan ditzaten: cherry, udarekara, kumatoa eta raf.
- Lehenengo txanda batean tomateen arteko aldeak aztertu (tamaina, koloreak, forma) eta guztira zenbat tomate dauden zenbatu; horrekin ikasitako zenbakiak errepasatuko dira.
- Aniztasunaren garrantziaz hitz egin, eta, bide batez, baita ikasgelan dagoen aniztasunaz ere (garaiera ezberdinak, ile-, azal- eta begi-kolore ezberdinak ...):
 - o Zer irudituko litzaizueke ikasgelan denok berdinak izango bagina? Eta denok ile-, azal- eta begi-kolore bera izango bagenu?
 - o Zuen ustez zer da hobe, ikasgela bateko haur guztiak berdinak izatea ala ikasgela bateko haur guztiak ezberdinak izatea? Zergatik?

IRAKURKETA-FITXA: LINOREN BARATZEKO SEKRETUA

Jarduera honekin, zera landu nahi dugu...

- Arloa: **Norbere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala.** 1. multzoa.
- Arloa: **Ingurunearen ezagutza.** 2. multzoa.
- Arloa: **Komunikazioa eta irudikapena.** 1. eta 3. multzoak.

Beharko dugun materiala:

- Posterra ipuineko irudiekin.
- "Linoren baratzeiko sekretua" ipuina.
- Barazkien txantiloia margotzeko (Eranskina).

Hezitzailearentzako oharrak:

Ipuineko marrazkiez osatutako posterra erraz ikusteko moduko leku batean jarri ikasgelan narrazioari irudien bidez lagundu ahal izateko.

Garapena:

1. fasea:

- Hurrei barazkien txantiloia banatu margotu ditzaten, ipuina irakurri ondoren hausnarketa egiteko beharko dituzte eta.
- "Linoren baratzeiko sekretua" ipuina irakurri eta marrazkiak dituen posterra erabili narrazioari laguntzeko.



2. fasea:

- Haurrak biribilean jarri galderak taldean erantzun ditzaten. Margotutako barazkiaren txantiloia prest izan beharko dute, erantzuteko erabili beharko baitute.
- Horretarako, margotu duten barazkia jaso beharko dute galdetzen denaren erantzuna bada (esate baterako: "zein dira baratzeiko txikienak?" galdetzen badugu, cherry tomatea, ilarrak eta barrengorriak margotu dituztenek jaso beharko dute bere marrazkia):

- o Nork uste dute direla baratzeko barazkirik garrantzitsuenak? Zergatik?
 - o Nor dira baratzeko txikienak?
 - o Norekinosatzen du talde bikaina Cherrik entsaladak egiteko?
 - o Zein da baratzeko sekretua, Cherrik kontatzen diena?
 - o Zergatik dira hain garrantzitsuak haziak, nahiz eta oso txikiak izan?
 - o Zer ikasi dute Cherriengandik baratzeko barazki guztiek?
- Margotutako txantilo guztiak ikusteko moduko leku batean jarri ikasgelan, hurrengo jarduera egiteko erreferentzia moduan beharko ditugu eta: “Aniztasuna”.





ERANSKINA







ERANSKINA





ERANSKINA



ATSEALDEKO IRAKURKETAREN JARDUERAK



ANIZTASUNA

Jarduera honekin, zera landu nahi dugu...

- Arloa: **Norbere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala.**
1. eta 2. multzoak.
- Arloa: **Ingurunearen ezagutza.** 2. multzoa.

Beharko dugun materiala:

Barazkien txantiloiak (Eranskina).

Hezitzailearentzako oharra:

Jokoarekin hasi aurretik, eranskineko txantiloiko barazkiak banatu behar ditugu behar diren taldeak osatzeko. Haur bakoitzarentzat barazki bat fotokopiatu, moztu eta banatu.

Garapena:

1. fasea:

- Ipuinean agertzen diren barazki guztiak ekarri gogora “Irakurketa-fitxa” jardueran margotutako txantiloiak erabilita.
- Baratzean eta, ondorioz, gure elikaduran mota ezberdinetako barazkiak egotearen garrantziari buruz gogoeta egin. Aniztasunaren aberastasunaren kontzeptua lantzeko joko erraz bat egingo dugu:
- Biribilean eseriko gara eta haur bakoitzari barazki bat izendatuko diogu honako hauen artetik (Eranskineko txantiloia erabili): tomatea, letxuga, barrengorria eta piperra.
- Ziurtatu haur bakoitzak badakiela zein den bere barazkia, eta, horretarako, eskua jaso eta zer barazki duten erakutsi behar dute.

2. fasea:

Jokoa azalduko dugu

- Honako esaldi hau esaten denean: “Gaur entsalada prestatzeko erabiliko dut/ditut...” erne entzun beharko dute barazkiaren izena, eta euren bada zutik jarri eta azkar-azkar zirkuluaren erdian jarri beharko dute. Esate baterako: “Gaur entsalada prestatzeko erabiliko ditut... **barrengorriak eta piperrak**”. Barrengorri eta piper guztiek erdira joan beharko dute.
- Era berean, honako hau esaten denean: “Gaur entsalada prestatzeko erabiliko ditut... **osagai guztiak**”. Haur guztiak altxatu eta erdian jarriko dira.

Has gaitezen jolasean:

1. txanda: "Gaur entsalada prestatzeko erabiliko ditut... **tomateak eta piperrak**".
2. txanda: "Gaur entsalada prestatzeko erabiliko ditut... **barrengorriak eta letxuga**".
3. txanda: "Gaur entsalada prestatzeko erabiliko ditut... **tomateak eta barrengorriak**".
4. txanda: "Gaur entsalada prestatzeko erabiliko ditut... **letxugak eta piperrak**".
5. txanda: "Gaur entsalada prestatzeko erabiliko ditut... **osagai guztiak**".





- Une honetan azpimarratu behar da dagoeneko baditugula osagai guztiak eta entsalada benetan goxoa eta askotarikoa egin dugula hainbeste motatako barazkiekin.

Berri txarrak:

- Txingor-zaparrada batek letxugak txikitu ditu. Haur guztiei eskatuko diegu ekaitzaren eta zaparradaren soinua egiteko. Letxugak kendu egin behar dira baratzetik. Ziurtatuko dugu letxugak zituzten haur guztiak erretiratu direla.
- Gure entsalada egiteko zenbat barazki geratzen zaizkigun zenbatuko dugu, eta, horretarako, eskua jaso eta bakoitzari berea erakusteko eskatuko diogu.
- Jakinaraziko diegu artalde bat sartu dela baratzean eta ardiek barrengorriak eta tomateak zapaldu dituztela. Eskatuko diegu artaldea irudikatzeko eta ardiek bezala bee egiteko. Baratzetik barrengorriak eta tomateak erretiratuko ditugu.
- Piperrak bakarrik geratzen dira. Gogoeta:
 - o Zuen ustez egin al dezakegu entsalada piperrekin bakarrik?
 - o Jango al zenukete piperrak bakarrik dituen entsalada?
 - o Jabetzen al zarete zein garrantzitsua den barazki mota ezberdinak izatea ongi elikatu gaitezen eta errezeta aberatsak, bitamina askokoak prestatu ahal izan ditzagun?
- Ugaritasunak aberastasuna esan nahi duela ulertu dugula ospatzeko, osagai guztiak erdian jarriko ditugu berriz eta honako hau errepikatuko dute guztiek batera ahots ozenean: "**Entsalada goxo honekin bete-bete eginda geratuko gara**".



ERANSKINA



BALIOEN BARATZEA

Jarduera honekin, zera landu nahi dugu...

- Arloa: **Norbere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala.** 1. multzoa.
- Arloa: **Komunikazioa eta irudikapena.** 1. eta 3. multzoak.

Beharko dugun materiala:

“Balioen Baratzea” posterra.

Hezitzailearentzako oharrak:

“Balioen Baratzea” posterra ikusteko moduko toki batean eseki ikasgelan haur bakoitzak bertan itsatsi ahal izan dezan bere barazkia marraztu eta margotu ondoren.

Garapena:

1. fasea: balioak ereingo ditugu

- Cherrik bezala, gizakiok ere hazitxoak ditugu gure barruan, gure **balioak** dira, besteen alde egiten ditugun gauza onak, alegia. Esate baterako, gauzak partekatzen ditugunean, eskuzabaltasunaren hazia ereiten dugu.
- Jarraian, haur bakoitzak gogokoen duen barazkia marraztuko du eta, ondoren, bere izena idatziko du bertan (A4 folio bakoitza lau zatitan egin eta haur bakoitzari zati bat eman bere barazkia margotzeko).
- Ikasgelan, ikusteko moduko leku batean, “Balioen Baratzea” posterra zintzilikatu.
- Gogoeta egin Batzarrean: Besteen alde egin duten gauza on bat pentsatu behar dute (norbaiti zerbait egiten lagundu diogu, zerbait partekatu dugu, bakarrik zegoen haur bati gurekin jolasteko esan diogu...). Haur bakoitzak ahots ozenean esan beharko du bere barazkia balioen baratzean jarri aurretik.

2. fasea: baratzea ureztatuko dugu

- Haur guztiek bere barazkia baratzean jartzen dutenean, gogoetari amaiera emango diogu: Gutako bakoitzak gure hazia, gure balioak erein ditugu baratzean besteen alde egin ditugun gauza onen bitartez, horregatik du izena **“Balioen Baratzea”**. Eta orain balio horiek zaindu egin behar ditugu, ureztatu egin behar ditugu, besteen alde gauza onak egiten jarraitu behar dugu. Hala egiten ez badugu, gure baratze ederra desagertu egingo da eta belar txarrez beteko da.

HAZIAK

Jarduera honekin, zera landu nahi dugu:

Arloa: **Ingurunearen ezagutza**. 2. multzoa.

Beharko ditugu:

- Cherry tomatearen haziak.
- Kartoi zati bat.
- Lorontzia, lurra eta ongarria.
- Marrazkia (Eranskina).
- Tomato-landarearen argazkiak (Eranskina).

Hezitzailearentzako oharra:

Garrantzizkoa: genetikoki eraldatutako haziak erabiltzen badira, emaitzak, agian, ez dira espero bezalakoak izango. Aholkatzen dugu, beraz, haziak tomate organiko bati kentzea.

Hurrengo bideoan aurkitu ahal izango dituzu tomate-haziak lortzen lagunduko dizuten jarraibide argiak:

<https://www.youtube.com/watch?v=ZkPUMiDBkqA>

Tomato-landareak aldatzeko, esteka honetako azalpenak jarrai ditzakezu:

<http://es.wikihow.com/plantar-semillas-de-tomate>

Garapena:

1. fasea: hazkundera

- Eranskineko marrazkiaz baliatuta, landare batek zein atal dituen eta zein ordenatan hazten diren azaldu, horretarako zer behar duen ahortzi gabe:

Landare bat sortzeko, lehenik eta behin, hazia eta lurra behar ditugu, eta, ondoren, urari eta eguzki-izpiei esker zainak aterako zaizkio, eta pixkana-pixkana zurtoina eta hostoak, eta, azkenik, loreak eta fruituak.

- Tomato-landarea nola hazten den azaltzen duten argazkiak erakutsi, prozesuaz jabetu daitezten (Eranskina).

2. fasea: haziak


- Ipuinean hazien inguruan landutakoa eta Cherrik haiei buruz esandakoa ekarri gogora. Barazki askok, eta, esate baterako, tomateek, barruan dituzte haziak.



HAUR

- Hazi-mota ezberdinen berri eman: Babarrunaren kasuan, babarruna bera ereiten da, eta ilarraren eta txitxirioaren kasuan ere bai.
- Haziak kendu tomateari: kartoi zatia hartu eta tomatea igurtzi kartoiaren kontra. Haziak erantsita geratuko dira. Eguzkitan lehortzen utzi eta berehala egongo dira haurrei erakusteko moduan (hazi hauek ez dira egokiak ereiteko).
- Ereingo ditugun haziak prestatu: tomateari haziak kendu aholkatutako bideoko azalpenak jarraituz, edo ereiteko prest dauden hazien poltsatxo bat erosi.
- Haziak lorontzi batean erein urrats bakoitzean zer behar dugun eta zer egin behar dugun azalduz (adierazitako estekako azalpenak jarraitu).
- Behin haziak erein ondoren, gero fruituak bildu ahal izateko landarea zaintzen guztiek parte hartzeak duen garrantziaz gogoeta egin.

ERANSKINA



TOMATEA HAZTEKO PROZESUA



ERANSKINA



BALIODUN ERREZETAK

Jarduera honekin, zera lortu nahi dugu...

- Arloa: **Norbere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala.** 3. eta 4. multzoak.
- Arloa: **Ingurunearen ezagutza.** 3. multzoa.
- Arloa: **Komunikazioa eta irudikapena.** 1. eta 2. multzoak.

Beharko dugun materiala:

Jarduera-liburua: Baliiodun errezetak (Eranskina)

Hezitzailearentzako oharra:

Jarduera honetan familia osoaren laguntza eskatuko dugu elkarrekin errezeta bat prestatzeko. Gurasoei jardueraren liburua ematen diegunean minutu batzuk beharko ditugu edukia eta nola bete behar duten azaldu ahal izateko.

Garrantzizkoa da, bestalde, familiek "Linoren baratzearen sekretua" ipuina ezagutzea, hain zuzen ere, jardueraren hobeto ulertu ahal izateko eta haurrei istorioan transmititzen diren balioak finkatzen laguntzeko.

Garapena:

1. fasea: etxerako lana

- Erakutsi eranskineko "Jarduera-liburua: Baliiodun errezetak", eta azaldu zer egin behar duten:
 - o Fitxa hau etxera eramango dugu gurasoen laguntzaz betetzeko. Etxean errezeta bat prestatu behar dugu "Linoren baratzearen sekretua" ipuinean agertzen diren barazkietako batzuk erabiliz. Gogoratu zein diren.
 - o Errezeta prestatzeko behar izan dituzten osagaiak nondik atera dituzten idatzi beharko dute: auzoko dendan erosi dituzten, edo supermerkatu batean, beren baratzearen barazkiak diren, senitartekoren baten baratzearenak diren, ...
 - o Familiako kide bakoitzak errezeta prestatzen egindako lana idatziko dute. Elkarrekin prestatu duten platera elkarrekin jango dute.
 - o Argazki bat aterako diote platerari eta, ondoren, familia osoari mahaian eserita elkarrekin prestatutako platera jaten, eta biak dagokion koadroan erantsiko dituzte. Marrazki bat ere egin daiteke.

2. fasea: gure errezetak

- Argazkiak erantsita dituzten fitxa guztiak ikusteko moduko leku batean esekiko dira ikasgelan, eta Batzarrean azalduko da egindako lana:
- Zer plater prestatu dute?
- Zer barazki erabili dituzte?
- Zer lan egin dute?

3. fasea: gogoeta

- Jabetu zaitezte zenbat osagai ezberdin erabili ditugun gure errezetak prestatzeko. Guk janari horiek guztiak ditugu eskuera: osagaiak nondik atera zituzten azaltzen duen atala begiratuko dugu.
- Jarraian, honako gogoeta hau egingo dugu: gero eta gutxiago zaintzen dugu planeta, munduko leku askotan haur askok ezin dituzte guk adina janari ezberdin jan, eta goseak egoten dira. Pentsatu behar dugu oso garrantzitsua dela planeta eta natura zaintzea, hortik ateratzen direlako jaten ditugun elikagai guztiak.

JARDUERA HONEN KOADERNOA: BALIOA DAUKATEN ERREZETAK


1. Prestatu errezeta bat, barazki hauetako bat edo batzuk erabiliz. Erabilitako barazkiak X batez markatu.
2. Idatzi nola lortu dituzuen errezeta prestatzeko osagaiak.
3. Adierazi pertsona bakoitzak ze lan egin duen.
4. Prestatu duzuen platera aurrean duzuela, mahaiaren inguruan bildu zaretenon argazki bat edota marrazki bat itsatsi.
















Gure errezetaren osagaiak (osagai bakoitzaren ondoan, idatzi nola lortu duzuen: erosi egin duzue? Non?; Baratze batetik hartu duzue? Norena zen baratzea?; Oparitu egin dizuete?..):

Nortzuk aritu gara plater hau prestatzen?

	Nik lan hauek egin ditut	
_____	lan hauek egin ditu	_____
_____	lan hauek egin ditu	_____
_____	lan hauek egin ditu	_____
_____	lan hauek egin ditu	_____

On egin! (plateraren argazkia edo marrazkia):

ANTZEZTU EGINGO DUGU

Jarduera honekin, zera lortu nahi dugu...

Arloa: **Komunikazioa eta irudikapena.** 1., 3. eta 4. multzoak.

Beharko dugun materiala:

- “Linoren baratzeko sekretua” ipuina.
- Hainbat material dekoratua eta pertsonaien jantziak egiteko.

Hezitzailearentzako oharra:

Ipuina antzeztea da helburua, eta Cherrik behin baino gehiagotan esku hartzen duenez, bere papera haur batek baino gehiagok egitea aholkatzen dugu.

Garapena:

- Banatu testua ikasgelako haur guztiei. Batzuk ipuineko pertsonaiak izango dira eta beste batzuk, berriz, narratzaileak.
- Pertsonaiak:
 - o Cherri
 - o Kuiatxoak
 - o Tomateak
 - o Ilarrak
 - o Piperra
 - o Barrengorriak
- Garrantzitsua da haur bakoitzaren familiak ipuina irakurrita izatea eta bere esaldia buruz ikasten laguntzea, eta, bide batez, istorioak transmititzen dituen balioak finkatzen ere laguntzea.
- Haur guztien sormena erabili pertsonaien jantziak eta dekoratua egiteko.
- Interesgarria izango litzateke istorioa ikastetxeko beste gela batzuetako haurrekin partekatzea eta ipuina urtean zehar egiten den jaialdiren batean antzeztea.